

# PLANGINTZA ETA MERKATUA: KALECKI ETA KORNAI-REN IKUSPEGIAK

Joseba Tobar Arbulu

Michael Kalecki nahikoa ezaguna duke irakurleak. Haren obren artean 1971n eta 1972an argitaratutakoek arrakasta handia izan dute. Ezezagunago dateke 1986an argitaratu zena.

Kalecki *monoarkia* barnean, hau da, alderdi politiko bakarreko sistema barruan, plangintza zentraldua gehi bigarren mailako zenbait sektoretako merkatu-mekanismoaren aldekoa zen. (Monoarkia eta poliarkia kontzeptuen arteko bereizkuntza Brus-ek egin du, ezaguna den Dahl-en poliarkia kontzeptua kontutan izanik).

Agian Janos Kornai ezezaguna izan dakioke irakurleari. Hala ere, nahikoa ezaguna dugu Kornai gure Mendebalde honetan. Askotxo idatzi badu ere, hemen interesatzen zaiguna azken hamarkada honetan argitaratu dena da (1980, 1982, 1986 etab.ean).

Kornaik, monoarkia barruan, eskasiaren arazoa aztertu du. Eskasaldiaren arazoa aztertu du. Eskasaldiak direla kausa, Hungarian batez ere, erreforma ekonomikoak ezagutu dira 1980ko hamarkadan. Beroriei eutsiko diegu laster.

---

## Kaleckiren ekarpenak

---

Kaleckiren fokapenak ondoko puntuok suposatzen ditu:

- I enpresarik garrantzitsuenak nazionaltzea (finantz enpresak, industri enpresak eta zerbitzu publikoak);
- II berorien ihardueraren koordinaketa, plangintza ekonomikorako erakunde batek egina;
- III kanporako merkataritza, banku eta finantz sistemaren gaineko kontrol publiko osoa; eta
- IV material eta produktu garrantzitsuenen esleipena ahal izanez gero.

Enpresa pribatuek oraindik paper garrantzitsua jokatzen dute bigarren mailako sektore industrialetan, kontsumo-ondasunen produkzioan eta banapen-zerbitzuetan.

Inbertsioaren plangintza zentralak lanindarraren enplegu osoa segurtatu beharko luke. Langile-kontseiluek –langile teknikari eta gestioegileez osaturik– plangintza ekonomikoaren aldeko izanik, beren enpresaren kontrola segurtatuko lukete.

Kaleckiren ereduan, zentralki plangintzatu sektore estatalaren ondoan, "liberalduriko" kooperatiba-sektoreak, artisau pribatuak eta eskala txikiko produkzio estatalak aritzen dira, ondoko printzipioetan oinarriturik: plangintza "indikatiboa", industria estataletik kooperazioa eta banapen-areak; kontrataturik ez dagoen outputen salmenta eta erosketak libreak

merkatuan; mozkin-banaketa (teknikari eta gestioegileei zuzendua, ez langileei); autofinantziaturiko inbertsioa, enpresa txiki estataletan ezik, non inbertsioa tokian tokiko autoritateak finantzatzen bait dute; tokian tokiko kontrolak.

Enpresa handiei helburu zehatzak eman beharko zaizkie, enplegu osoari dagokionez, bai eta ahalmen berriekiko inbertsio handiagoei dagokionez ere. Halaber, produkzio-helburuak eman beharko zaizkie, inputen banapena, alokairuen fondoa; beraien erosketak eta salmentak prezio-kontrolaren pean egon behar dute.

Brusek dionez (1977), Kalecki ez zegoen merkatu-mekanismoa erabiltzearen kontra, baina ekonomiaren funtzionamenduan, zeinak lerro nagusietan zentralki plangintzaturik egon beharko lukeen, merkatu-mekanismoa bigarren mailakotzat hartu zuen.

Nutiren ustez (1986), Kaleckiren ekonomia sozialistaren ereduak bi ereduren ezaugarriak gurutzatzen ditu, Ekialdeko Alemaniako sistemarenak (plangintza zentralduaren menpeko bertikalki industri-talde eratzeak, gehi "liberaldutako" sektore pribatua) eta Jugoslaviarenak (kooperatiba-sektorea, autogestioa), baina bion arteko merkatu, plan eta autogestiorako bitarteko errolak.

Nutiren ustez, *1986an*, hau da Gorvatxoven erreformek lort dezaketan gehiena, hau da, Sobietar Batasunean ailega daitekeeneko puntarik puntena.

Laburbilduz, Kaleckirentzat enpresa-mozkinen kontsiderazioek ez dituzte inbertsioak eta enplegua gidatzen. Plangintza zentrala errazago egiten dute elkarte sektorialez bertikalki osaturiko enpresek.

Keynes merkatuan sinesten zuen *torya* zen bezalaxe, Kalecki, plangintzan sinesten zuen ezkertiar sozialista zen. Dena den, gaur egun postkeynesiar epe batean gauden bezalaxe postkaleckiarrean ere bagaude, dudarik gabe.

Brusek (1985) zera dio: Kaleckiren heriotzaren eguna baino aste batzu lehenago, 1970ean, Kalecki eta Kowalik-ek saio batean "erreforma fundamentalak" proposatu zituztela, hau da, zegoen sistemaren barnean aldaketa esanguratsuak. Kowalikek berak (argitaratzeaz dagoen *Fundamental Reform of Real Socialism* izeneko artikuluan) alderdi politiko bakarreko estatuaren barruan, nolabaiteko pluraltasun politikoa, alderdi komunista lider izanik, proposatzen du.

Errealitatea, 1989an, haratago joan da, hala eta guztiz ere.

---

### **Kornairen ekarpenak**

---

Kornaik *soft budget constraint* edo aurrekontu ahuleko baldintzapen delako kontzeptua 1979 eta 1980.ean plazaratu zuen. 1986.ean (Kornai, 1986) bere erreformulazioa agertu zuen.

Aurrekontu-baldintzapena aldagaien gaineko *ex-ante*ko baldintza da,

lehendabizikoz eskariaren gainekoa. Aurrekontuaren ahultasuna gastuen eta irabazien arteko harreman hertsia lasaitu egiten direnean agertzen da, zeren irabazien gaineko gastuok beste erakunde batek, Estatuak hain zuzen ere, estal ditzan espero bait da.

Azkenean, aurrekontu ahuleko baldintzapena bi joera soziopolitikok sortzen dute. Alde batetik, gizarteak Estatuari ongizatezkorako erantzunkizuna eskatzen dion joera; bestetik, burokratizaziorako auto-berrindartzekoa.

Kornairen ustez, eskasaldia ekonomia sozialistetan arazo sistemikoa da, hots, egitura ekonomikoari berari dagokion arazoa.

Kornaik dioenez, efikazia ekonomikoa eta segurtasun-elkartasuna ez datoz bat. Berarentzat hauxe da benetako arazo eta dilema. (Aurrekontu sendoko baldintzapenak, aldiz, konkurrentzia sortzen du; ahultasunak beldur hau zokoratzen duelarik).

Hori horrela delarik, 1980tik 1989ra zenbait erreforma proposatu eta burutu izan da Hungarian. Ikus Kornai 1980b, 1982, 1983, 1986c, 1988 eta *Acta Deconomica* izeneko aldizkaria.

Merkatu-mekanismoa eta mekanismo burokratikoak koordinatzean datza hungariar dilema (Kornai 1984). Estatu-sektoreari dagozkion enpresen gaineko merkatu-disziplina ezartzeak porrot egin du, merkatu indarrak mikrosartze burokratikoek baldintzatzen dituztelako (Kornai 1984, 1986c).

Kornairentzat (1986b) estatu sektoreko erreforma partzialak plangintza zentralak eta merkatu-mekanismoak dakartzaten ondorioak txarrenak sortzen ditu; beraz, eskasi-ekonomiaren arazoak areagotzen ditu.

Berriro ere esan beharra dago errealtatea, 1989an, erreformek lekartzen puntuetara baino harantzago joan dela. Izan ere, hamar urteko eztabaida ondoren, 1990ean hauteskundeak izan ziren Hungarian, zenbait alderdi politikok parte hartu zutelarik.

Pluraltasun politikoa ageri zaigu beraz. Ez bakarrik Hungarian beste aldetik.

Alderdi politiko bakar baten barruan erreforma ekonomikoak ezagutuz gero, eta berauei dagozkien eztabaida teorikoak edukiz gero, demokrazia formal batek ezagutzen dituen hauteskundeak egon dira. Monoarkia batetik poliarkiara iragan da. Baina zer-nolako eredu ekonomikoak ezagutzen du Hungariak, 1990ean?

Azken erreforma-garaian, hala teorian nola praktikan *eskasaldi ekonomikoa* monoarkian aritu den eredu ekonomiko konkretu bati dagokiola frogatu da. Argi gera bedi, beraz, ez bakarrik stalinismoak baizik leninismoak ere, ekonomian, porrot egin dutela. Gauza bera politikan ere.

Beraz hauxe da gure lehen tesia: Hala ekonomian nola politikan leninismoak porrot egin duela.

Bigarren tesia zera da: Oraingoz ez dakigula, argi eta garbi, zehatz-mehatz, zer-nolako ekonomi mota agertuko den Hungarian eta estatu haietan.

Badakigu, ongi jakin, ekonomilari desberdinak ari direla beraien ideiak bultzatu nahirik (Kornai 1986c):

- (a) batzuk lehengo ereduari atxikitzen diote (ortodoxia leninistako partaideak);
- (b) beste batzuk kaleckiar ereduari eutsi nahi diote (Szego 1987);
- (c) sozialdemokratak ere badaude;
- (d) halaber, Friedman eta merkatu-mekanismo hutsa aipatzen dutenak ere badira;
- (e) Galbraith ere aipatu eta ikertu izan da.

Beraz, ia eskola guztietatik agertzen zaigu. Zer nolako etorkizun ekonomikoa ezagutuko duten estatu hauek oraingoz ikusteko da.

---

### Behin-behineko ondorioak

---

Zenbait ondorio garbi agertzen zaigu. 1980ko hamarkadan Europako Ekialdean ezagutu diren erreforma ekonomikoak ikusiz:

- I monoarkia barruan, Brusen kontzeptua erabiliz, plangintza orokor eta erabat zentralista denak porrot egin duela;
- II monoarkiaren orde, poliarkia agertu da nonahi, hau da, pluraltasun politikoa;
- III eztabaida teoriko eta praktikoko baten aurrean gaude: plangintza eta merkatu-mekanismoa, biak batera,

nola elkar? noraino bata eta bestea? zein arlotan bata eta zein bestea?

- IV ortodoxiaren porrota, bai Ekialdeko sozialismo errealaena, bai Mendebaldeko kapitalismoarena. Azken baieztapen hau, badaezpada ere, behin eta berriro aipatu behar da une honetan: langabezia, inflazioa, merkatal defizitak eta defizit publikoak, kanporako zorrak, ipar eta hegoaren arteko desberdintasunak, iparrean bertan agertzen diren pobrezia multzoak, eta abar luze bat ditugularik.
- V zer-nolako ekonomi mota dugun orain aztergai; nola funtziona lezakeen plangintzak merkatu-mekanismoarekin, zer-nolako ekonomia mistoaren aurrean gaude.

Bai teori mailan bai praktikan, ekonomia mistoa dugu aztergai gaur egun. Hauxe da, nire ustez, garrantzizko ondorioa.

---

### **Ekonomia mistoa**

---

Ikus, beste batzuren artean, Nove (1983), Hodgson (1984), Hare (1985), Dahl(1986).

Autore hauek zera proposatzen dute, ekonomia baten eratzea, baliabide-esleipenerako plangintza eta merkatu-mekanismoa *nolabait* konbinatu behar direla baieztatuz. Arazoa zerean datza, *nolabait* hori zer-nolakoa izanen den, zein sektoretan aplikatuko den bata eta bestea, nola kontrola daitekeen ekonomia misto hori, eta abar luzea. (Diogun, aipaturiko

ekonomia mistoak ez daukala ezer amankomunik Samuelson-ek proposatzen duenarekin).

Abalkin sobietar ekonomilarien ustez (1989), "...konfidantza daukagu merkatu-ekonomia sozialista factum bat izanen dela 2000. urtean. Argi dago Estatuak plangintzatuki erregulatu eta premia sozialek determinaturiko merkatua dela."

Bowles eta Gintis-i (1990) jarraituz, ez dut uste arazoa ohizko sektore estrategikoak sozialtzea denik (industria astuna, kasu), baizik eta esleipen-inefikaziak ez baturik dauden arloetan edo sektoreetan merkatu-mekanismoa erabiltzea. Walrasiar ereduko ondasun-eta zerbitzu-arloetan, kasu, merkatu-mekanismoa erabil daiteke.

---

### **Demokrazia ekonomiko baterako hitzaurrea**

---

Demokrazia politikoa kapitalismoak murriztu egiten du. Gakoa zera da, demokrazia politikoa murrizten ez duen baizik sakontzen duen demokrazia ekonomikoa lortzea.

Nire ustez, argi dago demokrazia ekonomikoak pluraltasun politikoan demokrazia partehartzailean eta ekonomia misto eta sozialistan oinarritu beharko duela. Kontua zera da, eredu orokor hori oraingoz ez dagoela erabat zehazturik.

Ekonomia misto sozialista horretan premia edo beharrian sozialei, hots, hezkuntza, etxebizitza, osasun, garraio publiko eta abarrei, ezein merkatu-

-mekanismok ez lieke inolako erantzunik emanen.

Nahikoa argi dago, halaber, pluraltasun politikoa dela irtenbidea. Horretarako ez da behar determinista izan, zeren ekonomia mistoak "gaine guturan" pluraltasun politikoa eskatzen bait du.

Pluraltasun formala ez da nahikoa, hala ere. Demokrazia formalak demokrazia partehartzailean oinarritu beharra dauka, hala gizartean nola enpresetan; hau da, autogestioa zentzu zabal eta sakonean da gaur egun ere gakoa.

Diodan bukatzeko, arazo guzti horiek behin eta berriro aztertu beharko genituzkeela, kapitalismoak eta "sozialismoak" izan eta izanen dituzketen aldaketak kontutan izanik. Ikerketa luze eta sakon baten aurrean

gaude. Hala eta guztiz, gaurkoz esan daitekeena hauxe da, ekonomia mistoaren aurrean gaudela, zeinak, nahitaez, pluraltasun politikoa behar bait du.

Ekonomia demokratikoa deritzon ekonomia mistoa izan liteke aztertzeko eta eztabaidatzeko abiapuntu. Ekonomia demokratikoak hiru oinarri hauek ditu gidari: (I) lantegietako demokrazia; (II) ekonomiaren beraren plangintza demokratikoa, merkatu-mekanismoi leku utzirik; eta (III) komunitateak berak kapitala esku-ratzeko ahalmen demokratikoa.

Ikusten denez, hemen ez nator irtenbide errazak ematera. Aitzitik, ikaragarritzko arazoaren aurrean gaude, non ezein ortodoxiak ohizko marxismo klasikoak zein keynesianismoak, ez luke ezertarako balioko.

---

## Bibliografia

---

ABALKIN, L.I., "A Paso de Tortuga, Entrevista con Leonid Abalkin", *Debats*, 2: 77-79. (1989)

BOWLES, S. eta GINTIS, H.; "Contested Exchange: New Microfoundations for the Political Economy of Capitalism", *Politics and Society*, 18, : 165-222. (1990)

BRUS, W., *The Market in a Socialist Society*, London: Routledge & Kegan Paul. (1972)

BRUS, W., *Socialist Ownership and Political Systems*. London: Routledge and Kegan Paul. (1975)

BRUS, W., "Kalecki's Economics of Socialism", *Oxford Bulletin of Economics and Statistics*, 39(1): 57-67. (1977)

- BRUS, W., "Socialism-Feasible and Viable?" *Nw Left Review*, 153: 43-62 (1985)
- DAHL, R.A.; *A Preface to Economic Democracy*. Berkeley, CA: University of California Press. (1986)
- HARE, P.; *Planning the British Economy*. London: Macmillan, (1985)
- HODGSON, G.; *The democratic Economy. A New Look at Planning the British Economy*. Cambridge: Cambridge University Press, (1971)
- KALECKI, M.; *Selected Essays on the Dynamics of the Capitalist Economy*. Cambridge: Cambridge University Press, (1971)
- KALECKI, M.; *Selectec Essays on the Economic Growth of the Socialist and the Mixed Economy*. Cambridge: Cambridge university Press (1972)
- KALECKI, M.; *Selected Essays on Economic Planning*. Cambridge: Cambridge University Press, (1986).
- KORNAI, J.; "Resource-Donstraineek versus Demand-Constraineek Systems", *Econometrica*, 47: 801-820, (1979)
- KORNAI, J.; *Economics of Shortage*. 2 bol. Amsterdam: North-Holland, (1980a).
- KORNAI, J.; "The Dilemmas of a Socialist Economu", *Cambirdge Journal of Economics*, 4: 147-157, (1980b)
- KORNAI, J.(1982) *Growth, Shortage and Efficiency. A Macrodynamic Model of the Socialist Economy*. California: University of California Press.
- KORNAI, J.; "Comments on the Present State and the Prospects of the Hungarian Economic Reforms". *Journal of Comparative Economics*, 7: 225-252.
- KORNAI, J.; "(1984) Bureaucratic and Market Coordination", *Osteuropa Witschaft*, 29: 306-319, (1983)
- KORNAI, J.;"The Soft Budget Constraint", *Kyklos*, 39, (1): 3-30, (1986a).
- KORNAI, J.;"The Hungarian Reform Process", *Journal of Economic Literature*, 24 (4): 1687-1737, (1986 b).

- KORNAI, J.; *Contradictions and Dilemmas: Studies on Socialist Economy and Society*. Massachusetts: MIT Press, (1986c).
- KORNAI, J.; "Freedom and Reform of the Socialist Economy", *European Economic Review*, 32 (2-3), (1988).
- KOWALIK, T.; "Fundamental Reform of Real Socialism", *Viena Institute for Comparative Economic Studies*.
- NOVE, A.; *The Economics of Feasible Socialism*. London: Allan and Unwin, (1983).
- NUTI, D.M.; "Michal Kalecki's Contribution to the Theory and Practice of Socialist Planning", *Cambridge Journal of Economics*, 10: 333-353, (1986).
- SZEGO, A.; "Reforms in a Shortage Economy: a Kaleckian Approach", paper presented at *Eastern Economic Association Meeting*, Washington, D.C., (1987).